

5. Euskal mundu ikuskerara: mitologia eta euskara aurreindoeuroparrak

Xabier Renteria Uriarte



5.1. Nor

a) Ikasketak / Studies / Estudios

- Ekonomia eta Enpresa Zientzian doktorea EHU

d) Argitalpenak / Publications / Publicaciones

- Hacia una Economía Holográfica. Una revisión de la Ciencia Económica a partir de la Ontoepistemología Oriental (2013)
- Del crecimiento al desarrollo y del desarrollo al rock” en Asier García Lupiola (ed.) (2007) Economía y Rock. La influencia de las relaciones internacionales y la economía mundial en el rock.
- ¿Es posible un desarrollo económico basado en el amor? una propuesta desde las visiones del mundo del Sur”; en Barrenetxea, Miren; Bou, Joan; y Curiel, Carlos (eds.) (2006) Contribuciones al debate sobre el Desarrollo Humano Local.
- “Maitasunaren Ekonomia: ekonomia sozialaren sakontzea” (propone una profundización de la Economía Social tomando como criterio el amor); en Errazti, Angel Mari eta Mendizábal, Antxon (2004) Ekonomia sozialaren erronkak kapitalismo globalean.

c) Experience / Eskarmentua / Experiencia

- Irakaslea EHUko Bilboko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan: Negozio Kudeaketan Gradua eta Nazioarteko Negozioetan Masterra ataletan (Master in Global Business)
- Bilboko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolako zuzendaria (2009-2012) eta zuzendariordea (1998-2009) izan da. Atzerriko unibertsitateetan bisitaria izan da Garapenaren Hezkuntzarekin loturiko programetan, eta Hegoaren aldeko erakundeetan militatu izan du.
- Zientziaren praktika eta metodologia berria eraikitzen ari da Ekialdeko filosofiaren, zoriontasunaren eta maitasunaren ikuspegitik. Horren aplikazioak proposatzen ditu ekonomian eta euskal mundu-ikuskeran. Aparte politika ekonomikoa, inflazioa, enpresa kultura edo lan merkatua ikertu ditu.

- Zuzendaritzan ikastegi osoa bere gain izan baino lehen, zuzendariorde gisa irakaslegoa, ikaslegoa, nazioarteko harremanak edota euskara betebeharrak izan zituen bere kargu epe desberdinetan.
- Garapenaren gaian eta lanean kooperazio kapitalistak Ipar-Hego egituren eta munduko txirotasunaren iraunkortzea dakartela borrokatu du, status-quo mantentzen duen limosna gisa funtzionatuz.

d) Harremanetarako / Contac / Contacto

xabier.renteria[abildua]ehu[puntu]es

5.2. Laburpena / Abstrac / Resumen

a) Oharra

Zirriborro hau proiektu zabalago baten lehen fasearen laburpena da (ikus bertsio luzeagoa <http://ehu.academia.edu/XabierRenteria> gunean; hor ere aurkezpen digitala eskuragarri). Tresna filosofikoen xehetasunak Renteria (2013) lanera igorriko ditut. Adierazle linguistikoen gaineko inplikazioei buruz, gogoan izan kontrasteen atalean egindako oharra.

b) Laburpena

Gaur egun mitologia eta hizkuntzaren arteko banaketa absolutu batean bizi gara, baina kultura zahar asko antzinateko “mitologia+hizkuntza” sinbiosian izan ziren sortuak. Beraz, bi alde horiek erkidean ikertzea euskal gizartea ezagutzeko eta euskararen jatorria ulertzeko laguntza ordainezina eskain diezagukete. Eta horretarako gakoa “munduikuskera” edo weltanschauung kontzeptua dugu. Adibidez, euskal mitologia Amalur edo Marirengan ardatza duen mitologia gisa dakusagu, eta Izadiaren edo Naturaren gorpuzte gisa ulertzen dugu.

Baina munduikuskeraren ikuspegitik (numen nagusiaz ari garenez) errealitatearen esentziako irudiaz ari gara, eta hizkuntzan zerizana nola definitzen den ikusi beharko da. Euskararen esentzia hutsaren ideiarekin definitzen da (“kafe hutsa nahi dut”, “lelo hutsa zara”), eta zelai semantiko linguistiko-mitologikoa koherentea da horrekin. Mito guztiek dituzte azaleko eta sakoneko irakurketak; beraz, Mari edo Dama Izadiaren irudia izan daiteke azalean, baina sakonean “Hutsaren” irudia ere izango dugu.

Kontraesankorra eta ilogikoa ematen du lehen balizko ontologiko gisa “Zerizana=Hutsa≈Amalur” planteatzea, baina planetako tradizio filosofiko handienekin lotzen gaituen eta beraien pare jartzen gaituen ikuspegia da. Gure filosofia, hizkuntza eta jatorria ez dira ezkurak jaten zebiltzan cro-magnon batzuen ergelkeria! Eta munduikuskeraren beste ardatzak zehazten ondorio hau indartuko genuke... Non geldituko dira euskaldunok ditugun biktimismo historiko eta kultur gutxiagotasun konplexu tradizionalak? Euskal gizartearen eta euskararen jatorria munduikuskeraren gakoa erabiliz aztertzen jarraitzeak ezuste gehiago ekarriko dizkigu, zalantzarik ez.

Formalki: aitzin euskaldunek mitologikoki eta linguistikoki adierazitako munduikuskera egungo parametro filosofiko-kontzeptualetan berreraiki daitekeela argudiatuko dugu, eta erakusle gisa munduikuskera baten lehen ardatza (“zer da errealitatea eta nola ezagutuko dugu?”) garatuko dugu. Horretarako, “arreta-fokatzaile” gisa diharduen “Hutsaren

prototipo kognitibo-linguistikoa” finkatuko dugu hasieran tresna kontzeptual gisa, eta egun mendebaldarrak ez diren tradizio filosofiko handienen parekoa dela argudiatuko dugu amaieran. Horra heltzeko, indoeuoparren lehen eragin arrotzen aurretik euskaldunok existentzia sentitzeko, kontzeptuatzeko eta hitzetan islatzeko modu berezia bagenuela onetsiko dugu, eta garai “modernoetara” aitzin munduikuskera horren zenbait arrasto mitologiko, linguistiko eta kultural -eskas baina sendo- heldu direla.

Argudioetan erakutsiko dugu: munduikuskera edo weltanschauung delakoaren garrantzia; hizkuntzetan “arreta-fokatzaille” gisa diharduten “prototipo kognitibo-linguistiko”ak badirela eta aurrekoen gakoak direla; “Hutsaren arreta-fokatzaillea” euskal munduikuskeraren funtsa eta hatsarria dela; oro har, berezko euskal prototipo epistemikoak aurreindoeuoparrak direla; eta beraien sistema orokorra egungo Europa mendebalekoa ez den “filosofia perenne” gisa oso ondo ulertzen dela.

c) Long abstract

We currently live in an absolute separation between mythology and language, but ancient cultures bornt in the times of symbiosis "mythology + language." Therefore, it could be invaluable to research the origin of the Basque and Basque from the point of view of these two aspects in common. And the key to this is the concept of "world view" or Weltanschauung. For example, Basque mythology is traditionally understood from the figure of Amalur or Mari as the personification of nature. But from a scheme of "worldview" first numen or deity indicates the image of the world, the essence of reality. And if we go into Basque, we see that the essence of things is defined by its emptiness ("kafe hutsa nahi dut", "lelo hutsa zara"), and the related mythological and semantic fields are consistent with this idea.

It seems contradictory and illogical to apply as first ontological principle that "Reality = Emptiness = Mother Earth", but it's actually something typical of large non-Western cultural traditions of the planet. Our philosophy, language and origin are not a product of the stupidity of some cro-magnon eating acorns! This result is reinforced if we continue restructuring the Basque worldview form an according conceptual escheme. Where will go our traditionals historical victimism and cultural inferiority complex? To investigate our society and language from these keys will bring out new surprises, no doubt.

Formally: we propose that it is conceptually possible to reconstruct ancient worldview of the Basques, and we advance the first axis to show it ("What is reality and how we know?"). To begin this reconstruction we will propose that in the Basque worldview an "attention-focuser prototype in the Emptiness " connects us and it puts us at the level of philosophical traditions which are not currently Western. This means that before the arrival of the Indo-European the Basques had a certain way of feeling, conceptualizing and reflecting on words the existence, so that certain traces in mythology, in the language and other cultural as art or popular collective structures have survived to this day.

In the arguments we will show: the importance of the "world view" or "Weltanschauung"; "attention- focusers" of certain "cognitive-linguistic prototypes" held the worldvies; Basque worldview stands on a " attention-focuser prototype in the Emptiness"; Basque epistemic protoypes are genuinely pre-Indo-European, and their overall system does not make sense in the current western culture but it is well understood as" perennial philosophy ".

d) Resumen

Actualmente vivimos en una separación absoluta entre la mitología y el lenguaje, pero las culturas antiguas se formaron en los tiempos en que se vivía una simbiosis "mitología + lenguaje". Por lo tanto, podría resultar una ayuda inestimable investigar desde estos dos aspectos en común el origen de la sociedad vasca y el euskera. Y la clave para ello es el concepto de "visión del mundo" o weltanschauung. Por ejemplo, la mitología vasca suele entenderse tradicionalmente como algo basado en la figura de Amalur o Mari como personificación de la naturaleza. Pero desde un esquema de "cosmovisión" el primer númen o deidad indica la imagen que se tiene del mundo, de la esencia de la realidad. Y si acudimos al euskera, vemos que la esencia de las cosas se define por su vacío ("kafe hutsa nahi dut", "lelo hutsa zara"); y los campos semánticos y mitológicos relacionados son acordes con esta idea.

Parece contradictorio e ilógico postular como primer principio ontológico que "Realidad=Vacío=Madre Tierra", pero de hecho es algo propio de las grandes tradiciones culturales no occidentales del planeta. ¡Nuestra filosofía, lenguaje y origen no son producto de la estupidez de algunos cro-magnones comiendo bellotas! Un resultado que se refuerza si proseguimos reestructurando la visión del mundo vasca con un esquema conceptual acorde. ¿Dónde quedarán nuestros tradicionales victimismos históricos y complejos de inferioridad culturales? Investigar nuestra sociedad y lenguaje con estas claves nos seguirá deparando sorpresas, sin duda.

Formalmente: proponemos que es posible reconstruir conceptualmente la antigua visión del mundo de los vascos, y como muestra adelantamos su primer eje ("¿qué es la realidad y cómo la conoceremos?"). Para comenzar esta reconstrucción propondremos que en la cosmovisión vasca un "prototipo enfocador de la atención en el Vacío" nos relaciona y nos pone al nivel de las tradiciones filosóficas no actualmente occidentales. Ello implica que antes de la llegada de los indoeuropeos los vascos teníamos una determinada forma de sentir, conceptuar y reflejar en palabras la existencia, de tal manera que han llegado hasta nuestros días determinados vestigios en la mitología, en el idioma y en otras manifestaciones culturales como el arte o las estructuras colectivas populares.

En los argumentos mostraremos: la importancia de la "visión del mundo" o "weltanschauung"; que ello se sostiene en "enfocadores de la atención" o ciertos "prototipos cognitivo-lingüísticos"; que la visión del mundo vasca parte de un "prototipo enfocador de la atención en el Vacío"; que los prototipos epistémicos genuinamente vascos son preindoeuropeos; y que su sistema global no tiene mucho sentido en la actual cultura occidental pero se entiende muy bien como "filosofía perenne".

5.3. Txostena / Communication / Ponencia

a) Zergatik ezagutu euskal munduikuskera?

Gaur egun Euskal Herriko kultura, beste gizarte mendebaldarrak legez, mitologia eta hizkuntzaren arteko banaketa absolutuan bizi da. Baina gurea bezalako kultura zahar asko antzinateko "mitologia+hizkuntza" sinbiosia bizi zen garaietan sortuak eta egonkortuak izan ziren. Beraz, bi alde horiek erkidean ikertzea euskal gizartea ezagutzeko eta euskararen jatorria ulertzeko laguntza ordainezina eskain diezagukete. Zer dugu egina eta zer egiteke? Mitologia eta hizkuntza erkidean ulertzeko hatsarria eta gakoa "munduikuskera" edo weltanschauung kontzeptua dugu, eta bere aplikazioan kontzeptu analitiko berriak proposatu eta beste kultur adierazpide batzuk kontuan har daitezke.

Ikus dezagun adibide bat. Euskal mitologia Amalur edo Marirengan ardatza duen mitologia gisa dakusagu, eta "Dama" hori hartu ohi dugu Izadiaren edo Naturaren gorpuzte gisa. Izan ere, hala da mitoaren literalean, baina mito horrek, beste edozeinek bezala, sakonagoa den esanahia ere badu. Kasu horretan oso garrantzitsua da, mitologiako "Jainkosa" nagusiaz hitz egiten ari garelako eta, beraz, errealitatearen esentziako irudiaz ari garelako (munduikuskera baten eskema erabiliz).

Orduan hizkuntzan zerizana nola definitzen den ikusi beharko dugu, eta beste alde kulturekin koherentziak aztertu. Euskarari ez da oso igarria esentzia hutsaren ideiarekin definitzen dela: "kafe hutsa nahi dut", "lelo hutsa zara". Eta bai, lelo hutsak eta putzak gara! Ez baikara konturatu hau munduko filosofia espekulatibo handien lehen gakoa dela: "mundua" deritzoguna ilusioa omen dela (maya, amets partekatua ...), eta hipostasian edo hasieran "huts adiezina" dela (taoa, nirvana...). Eta "Huts" horren gorpuzte eta ulerpen dugu Mari edo Dama bere irakurketa sakonean, ez "Izadiaren" gorpuzte soila.

Horrela, Mari izadiaren irudi gisa mantentzen da azaleko irakurketan, baina sakoneko irakurketan errealitatearen funtsa eta zerizana den Hutsaren gorpuzte gisa ere uler dezakegu. Bitxia dirudi, baina munduko filosofia handietan ematen den konstantea da (bide batez, "jainkosa" labela eztabaidagarria da, ziurrenik izadiaren sentipen bakunaren irudia zen, edo hala nahi bada -nahiz gutxiespena dakarren gure gizartean- sentipen "animista").

Euskal mitologia eta euskara erkidean ikertuta, munduikuskeraren eskema aplikatuz, gisa horretako ustekabeko opariak izango ditugula uste dut. Oro har, askoz hobe jabetuko dugu gure kultura eta bere "euskal aitzin munduikuskera" ez direla ezkurak jaten zebiltzan cro-magnon batzuen ergelkeria, munduko tradizio filosofiko handien pare jartzen gaituen filosofia sakona baizik.

Horrek garrantzia handia du, euskaldunok badugulako biktimismo historiko bat: keltan antzinako etorreratik hasita eraso eta eragin arrotzak besterik ez ditugula historian zehar pairatu, beti atzeraka gabiltzala ... Gutxiagotasun konplexua ere badugu, bigarren mailakoak garelakoan ... Baina batetik historian zehar eginiko defentsa armatuei eta politikoei esker, eta bestetik pizkunde kultural kronikoei esker, hemen darraigu. Dena den, azken hauetan gure aitzin munduikuskera egungo forma kontzeptualetan berreraikitzeaz dagoela uste dut. Horri ekarpena izan nahi du honek.



"Munduikuskerak" delako kontzeptua tradizio filosofiko alemanetik datorkigu eta "weltanschauung" izena du han ("welt" edo "mundu", eta "schauung" edo "intuizio", "ikuspegi", "aurreikuspen"). Mundua hauteman eta interpretatu ahal izateko dugun ikuspegi orokorra adierazten du, eta bertatik ikusten duen mundu bat da, normalean, jendarte batek unibertsoari eta bizitzari buruz dituen sinesmen zehatzen bilduma gisa⁵. Sintesian, "inguruko mundua azaltzeko ditugun buru-mapak dira munduiskuskerak" (Pesut, 2003, 291), "mundu-eredu" erabilgarria eskaintzen digutenak (Walsh & Middleton, 1984, 32). Mundu-ikuskeren ikertzaile nagusienetakoa den Mark E. Koltko-Riverak (2004) honela definitzen du: "errealitate fisiko eta sozialari buruzko oinarrizko hipotesi multzo batek osaturiko batasun kognitiboa da".

'Weltanschauung' kontzeptua paisaia teorikoan jarri zuena Kant izan zen, bere Kritik der Urteilskraft'en (1790, Epaiaren Kritika). Eta hondarra utziko zuen tradizio alemanean, pentsalari handiek kontzeptuari egindako ekarpenei esker (Dilthey, Husserl, Gadamer...). Dena den, 1830erako nozioa barneratua zen Europako beste herrialdeetan, eta XIX. mendearen amaieran elkarrizketa intelektualetan, eta kaletarragoetan ere, kontzeptu ezaguna zen dagoeneko (Wolters, 1983).

Zer dakigu Euskal Herrian gure weltanschauung'ari buruz? Has gaitezen dagozkion harrobiak gogoratu. Euskal mitologiari buruz XX. mendean aurki zitekeena nahiko bildu zela dirudi, egitura nahiko onartuak eta zentzudunak eman zaizkio, eta bere esanahiei buruz ere nahiko proposamen egin dira⁶. Era berean, euskararen jatorriari buruz mugagabeko aukerak zundatu dira, bere antzinako formei buruz lan ildoak biziak dira, eta esangurei buruz ere saiakerak eman dira⁷. Azkenik, badirudi etnologiaren ikerketa nahiko

⁵ *Weltanschauung* delakoaren ordaina ez dago euskeraz guztiz finkaturik. "Munduiskuskerak" sintetikoa hautatu dugu European erabiltzen diren Weltanschauung'ren eta worldview'ren antzekotasunagatik, nahiz eta erabiliak dira "mundu-ikuskerak", "mundu ikuskerak", eta "kosmo-ikuskerak" (hauek "vision du monde", "vision del mundo" edo "cosmovisión" delakoen antzekoak lirateke).

⁶ Bilketaren birpasa laburra: Cerquand (1875), Webster (1879), Barbier (1931), Barandiaran (1976), Etxebarria (1995), Arana (1998)... Bildutakoari emandako egituretan, Barandiaran (1976) da zalantzarik gabeko kanona, Arana ere koherentea da (2000; 2004), funtsen erakusle onak Hartsuaga (2004; 1987) eta Peillen (2000), eta oso iradokitzailea Labat (2012). Esanahiei buruz, eta gogoratu joango garenez, zabala da eszenatokia: Barandiaran (1976), Castellano (1977) Hornilla (1991), Ortiz-Osés (1996), Hartsuaga (Hartsuaga, 2004; 1987), Arana (2000; 1999), Mtz. Lizarduikoa & Baltza (2007), Zubiaga (2009), Robles-Arangiz Bernaola (2009),... Bide batez esateko, euskal mitologiaren azterketa modernoaren hasieratzat jar daiteke kanon barandiaranistaren hasiera bera (Barandiaran, 1922a; 1922b; 1922c), gerora funtsa sendoak izango zituena (Barandiaran, 1960; 1961; 1962; 1962b; 1987); ez da lekuz kanpo gogoraraztea egun euskal mitologiako jendartaratze lanetan hamarretik bederatzik (bederatzik gaketx bederatzik ez bada) egitura kanoniko hau duela oinarri.

⁷ Kasu honetan bibliografia askoz zabalagoa da, eta arrikutsuagoa da beraz laburpen historiko erakusgarria (eta laburpen soila bera ere) saiatzea (birpasa ezagunetan Tovar, 2007). Eztabaidaren gako nagusia, ziurrenik, hizkuntza isolatua den edo antzina kide zabalagoak zituen da. Ortodoxien arabera, euskara betidanik Añamendien ertain-sartaldean edota sartaldean izan da kokatua: antzinako tubalismoaren arabera, Babel dorrearen gainbehera eta gero Tubalek ekarrira alde honetara; eta

zabala izan dela⁸. Horrela, euskal mitologia, linguistika eta etnologia -gure herriaren tamaina eta estatu gabezia kontuan harturik batez ere- nahiko landuak eta dinamikoak izan direla esan dezakegu, baina zer esan dezakegu horien atzeko *Weltanschauung*'a arakatu izan denaren neurriari buruz?

- *Euskal mitologiaren ikerketan nahiko lan egin da atzean duen euskal munduikuskera ezagutzeko, eta askotan, euskararekin loturan.* Legenda, ipuin eta mitoen atzean zer zegoen beraiek biltzeko landa lanak egin eta gero oso laster hasi ziren, batez ere Barandiaranekin (1922b), euskal munduikuskera ulertzeko euskararen egindako zundaketa etnologikoak. Arrunta izan da hori diziplinan, ziurrenik euskalduntasunaren ideia modernoetan euskarak izandako leku apartak lagundurik⁹. Horrela, sarri egin da lan euskararekin, mitologiaren alde asko zundatuz edo argudiatuz hizkuntzan aurki daitezkeen aztarnen gain; adibidez (eta akaso bereziki), Barandiaranek (1987, 134-7) ere jasotako “ortz-” “ost-” aurrizkien esanguraren atzean eztabaida luzea izan da, ikusiko den bezala.
- *Euskararen ikerketan ez dirudi hainbeste arreta jarri denik atzean duen weltanschauung'a arakatzeko.* Badirudi euskal hizkuntzalari “profesionalak” eskuarki eta historikoki ikerketa ildoak euskararen “azalean” (adierazpide fonetikoetan, lexikaletan eta abar) lehenetsi dituztela eta, horrela, ez dutela neurri berean arakatu hizkuntzaren “sakonean” (esamoldeen eta zelai semantikoen “munduikuskera” esanahietan adibidez). Dena den, zenbait hizkuntzalari oso interesatuak egon dira alde sakon horietan. Bat aipatzearen (baina ez besteen kaltetan) Txomin Peillen (2000) euskaltzainaren *Euskaldunen ingurugiroan* interesgarria¹⁰. Diziplinartetik ere ekarpen oso baliotsuak etorri zaizkigu; altxor gisa aipatzekoa da Baltza (2000; 2007).

egungo ortodoxiaren arabera, beste hizkuntzekin ondo zimendutako kidetza erlaziorik ez denez argudiatu, hori ondorioztatu behar dugulako. Heterodoxien arabera, aldiz, aurkituriko zenbait kidetza erlazioen arabera euskara antzinako sendi-hizkuntza zabalagoen parte da. Genetikarekin paralelotasunak ikusita (euskaraz ikus Abrisketa, 2007), eta zenbait toponimo eta etimologietan oinarriturik, indar handia hartzen ari da euskara hizkuntza aurreindoeuroparren azken aztarna deneko ustea (Morvan, 1996; Vennemann, 2003...). Eremu horren baitan edo horretatik kanpo euskarak beste hizkuntzekin ukidurak edo senitartekotasunak izan zituenaren proposamenak historian zehar ugari izan dira; txikitik handira adibide batzuk emateko (eta egungo zientzian lekua izan dezaketenen eztabaidetan sartu gabe): euskera Errioxako hizkuntza gisa (Aznar Martínez, 2011); Auñamendien ertain-sartaldeko hizkuntza gisa (Núñez Astrain, 2004a; Núñez Astrain, 2004b); Kaukasoan (Bouda, 1948; Braun, 1998; Charlat, Alvar López, & Mokoroa, 1980...; Lafon, 2000); asiar-europar eremu zabaletan (Arnaiz Villena & Alonso García, 2001); Sumeria zaharrean (Zubiaga); planetatik kanpo (Urtzi)... Antzinako formei buruz lan ildo akademiko bizia da Mitxelenak hasitakoa, Lakarrak jarraiturikoa (Lakarra, 1995; 2009), eta gainean landutakoak (Martínez Areta, 2008); euskaltzale ez profesional eta diziplinartekoetan ekarpenak ez dira hain zientifikoki baloratuak baina aproposak akaso zientziaren hastapenak irudikapen eta zundatze askeak behar dituela uste badugu. Euskarak gordetako esangurei buruz ere zenbait saiakera egin dira historian zehar: Erro eta Azpiroz (1829), Mortara (1910), Azurmendi (1992), Zubiaga (2001),... eta euskararen *weltanschauung*'aren ikerketa berrirakurtzean aipaturikoak.

⁸ Lanak hain zabalak izanik, berriz ere, zaila da sintesia. Erakusgarrienak bildumak dira hortaz: Lur (Kreiman & Ivniksky, 1998; Kreiman & Ivniksky, 1998; Lur, 1998; 1999). Barandiaran & Ayerbe (1988), Garmendia Larrañaga (1997-2000)... Horra heltzeko izan den euskal etnologiaren historiako Manterola (1994), Apalategi & Erkoreka (1988), Beguiristain (2011)...

⁹ Barandiaranek (1977) espresuki sartu zuen hizkuntza kulturako definizioetan, nahiz eta etnologiaren eremuko beste aukera batzuek ez egin hori beti (eszenatoki klasiko batean ikusteko Kroeber, Kluckhohn, & Untereiner, 1952, epe horretarako jada 250 standar jaso zituztenak), eta gainera historikoki lehen aukera ez izan (adibidez kulturaren lehen definizioa suposatzen zaion Tylor 1871). Berriki nazioarteko ikerketa psikologiko batean nabaria izan da “euskal emozio”en artean “euskara zaletasuna”ren presentzia (Alonso-Arbiol et al., 2006).

¹⁰ Adibide gehiago: Jose Maria Satrustegi (Mitos y creencias, Antropología y lengua...), Zubiaga (2000; 2001),...

- Orokorrago, mitologiaz bestaldeko euskal etnologian ere bertoko ikuskera ontoepistemikoa ulertzeko interes handia egon eta mantentzen da. Adibideen zerrenda luzeegia litzateke; har kasu berri gisa Santos eta Madina (2012), Bustillo, Frank eta Martínez Lizarduikoa (2008), Frank (2003)...

Dena den, eta zoritxarrez, ekarpen horiek guztiak eta gero zail gerta dakiguke oraindik euskaldunek berezkoa duten munduikuskera era zabalean eta xehetasunekin aurkeztea. Sistematiakoak izanik, oraindik genuke epaitzeko benetan “euskal munduikuskera” zabala eta koherentea inoiz izan dugun. Arriskutsuegia litzateke, joerak horrela jarraituz, euskararen eta euskaldunen jatorria, historia eta izaera ezagutzeko gabezia hori egiturazkoa bilakatzea. Helburu horrek euskal ikerketei soslaia ematea onuragarria gertatuko litzaziguke, ziurrenik. Adibidez, euskararen iragana ezagutzeko (aipatu irizpideari jarraiki), euskalaritza modernoak euskararen antzinako formen gaian etimologiak eta adierazpideen berreraikuntzak lehenetsi ditu, euskararen jatorrian eta jatorri horretan senide posible izan zitzakeen beste hizkuntzen arakatzek alboratuz.

Eta zientziak aukera guztiak gal ez ditzan komeni da! On bekiola hainbeste lan eta neke hartzen ari duen euskararen “barne eraikuntza” delakoari, baina lexikoaren etimologiaz landa zelai semantikoek gordetzen dituzten altxorretan begiratzea ez genuke ahaztu behar. Nork daki jatorriaren eta senideen gaiak beste argiaren pean ikusiko genituzkeen lan ildo desberdin hauei jarraiki!

Eta tamala da, afera honetan izan genuelako gure profeta: Justo Mari Mokoroa. Euskaltzain horren *Genio y Lengua* (Mokoroa, 1936) delakoak eragin itzela izan zuen geroko belaunaldietan urte horretan hasitako Guda Zibilak eta geroko diktaduraren debekuek hedapena ikaragarri murriztu bazuten ere. Hizkuntza batek herri baten volksgeist edo, -terminu moderno zehatzagoetan- weltanschauung delakoa islatzen zuela zioen: herriaren izpiritu kolektiboa, bere munduikuskera eta izaera epistemiko zehatza. Ez zen sagardotegi batean botatako proposamen arina: Justo Marik bizitza osoa pasatu zuen “Euskal Herriaren jainua” erakusten zuten euskararen esaerak biltzen, oso gerora Ortik eta emendik (1998) izeneko liburukietan ongi sailkaturik argitaratu zirenak. “Hortxe ditugu mota guztietako euskal esapideak, euskararen muina azaltzen dutenak eta, aldi berean, gure hizkuntzaren giharra eta indarra, kolorea eta zaporea, gatza eta piperra, grazia eta arima eskaintzen digutenak” (Esnal, 2001, 138).

Mokoroak oso ondo ikusi zuen gauza bat direla hitzak, ahoskerak eta idazkerak, eta bestelakoa “esaera”, esapide” eta “esamolde” deitzen ditugunak, eta azken hauen atzean arakatu behar dela jendarte baten eta bere hizkuntzaren arima. Jadanik eginak dira zundaketa etnologikoak Mokoroaren bilketen gainean (adibidez Juaristi Larrinaga, 1996), baina asko dago egiteko¹¹. Are gehiago, euskal munduikuskera ezagutzeko euskararen gaineko arakatzeko semantiko hauek euskal mitologiarekin eta beste etnologiak ikertutako euskal nortasun berezitasunekin erkidean zundatu behar direnean.

¹¹ Berak bildutako “hizkuntzaren jainua” erakusten duten esapideen gain egin beharreko lanaz aparte, Mokoroa oraindik Euskal Herriko eta euskararen historia intelektualean behar bezala baloratzeko daukagu. Aranismoak odola eta ikur kulturalak lehenesten eta ondorioz (gaur egun bitxia badirudigu ere) euskararen garrantzia gutxien zuten garaietan idazle horrek gogor oihukatu zuen gure arima euskararen datzala. Baina, are gehiago, bere gar profetikoa ez da askotan gaintu ez gure tradizioan eta ez besteetan. Berriki, adibidez, atzerriko idazle batek beraien hizkuntzaren “jainuaz” idatzi du (*El genio del idioma*, Alex Grijelmo, 2011), adierazpideetan asko fokatuz, etimologiak eta hitz-sorten formak landuz, baina hitz sorta horien atzean aurki zitzakeen semantikak nahikotxo alderatuz.



(Justo Mari Mokoroa, aipatu bi klasikoak eta txikitako folklore argazkia).

Munduikuskerak egun kategoría analitiko gisa duen presentzia nabaria da gizarte zientzietan. Ondo onartutako kontzeptua da, eta askotan aipatua, zaila izanik munduiskeren existentzia ukatzen duen inor aurkitzea. Baina "kultura edo gizartearen dimentsio epistemiko"aren sinonimo gisa har dezakegula kontuan izanik, kontzeptuaren erabilerak benetan bere mailako garrantzia duen galdetu beharko genioke gure buruari, zintzoak izateko. Kontuan har oso gutxitan dela erabilia diziplinetan kategoría analitiko operakor gisa (hau da, ikerketa objektuak zehazteko edo kontrastatzeko), nahiz eta horretarako proposamenak izan diren (Hedlund-de Witt, 2012; Koltko-Rivera, 2000; Obasi, 2002) eta sistematizazio zehatzak ere ugariak izan diren (gogoratu kasu honetan erlatibismo linguistikoaren adibideak). Zein da arrazoa? Eta are gehiago, kezkatuta egon beharko ginen horretaz?

Zantzu guztien arabera, munduiskeraren kategoría "bere arrakastagatik hil da". XIX. mendeko Alemanian argudio sendoak eman eta gero, eztabaida gabe hurbilketa eta erreferentzia kontzeptu gisa arazo gabe erabiltzen baita, eta zer edo zer zehaztu behar denean kontzeptu partikularretara pasatzen da teoriararia. Beraz, ez litzateke hobe horrela jarraitzea eszenatoki teorikoa gehiago nahastu gabe? Zoritarrez, honakoa gogoratu behar dugu. Akaso ez dago arazorik "mendebaldar", "Newtondar" edo "Kuuk Thaayorretar" munduiskerak eta beraien zehaztasunak badirela onartzeko, baina oraindik mantentzen dira planetan "munduiskera" gisa onartuak izateko arazoak dituzten eskema epistemikoak, izan "volk", "etnia", "gizarte" edo "kultura" moduan, izan "paradigma zientifiko" moduan, ala izan "diskriminazio positiboa merezi duen berezitasun kognitibo" baten bat gisa.


Horrela, "aetasak" eta "euskaldunak" izan dezakete zer edo zer esateko, "soken teoriak" eta "paradigma holografikoak" ere, eta azkenik "australiar bertokoen" eta "polinesiarren" zenbait berezitasunek ere. Kasu hauetan, munduiskeraren kategoría aproposa baino gehiago akaso beharrezkoa da. Batetik, eskema analitiko orokor bat aplikatu dezakegu dagokion izaera epistemikoa egiaztatua eta onartua izan dadin (hemen erabiliko dugu Renteria, 2013'n proposatua) Bestetik, komeni da munduiskera osoaren eta bere isla zehatzen arteko erlazioak ondo zehaztea (ez baitugu ahaztu behar munduiskeraren edo bere inplikazio zehatzen baten errekonozimendua ez den kasuetan gaudela), eta makro-mikro mailen koherentzia hau ziurtatzeko "arreta-fokatzaile" gisa diharduten "prototipo kognitibo-linguistiko" kontzeptua proposatuko dugu.



b) "Arreta-fokatzaile" gisa diharduten "prototipo kognitibo-linguistikoak"

Arreta-fokatzaile gisa diharduten prototipo kognitibo-linguistikoaren argudiaketa sendoak etnologian eman ohi den munduikuskera kontzeptutik psikologiako teoria kognitiboaren prototipo kategorioletara garamatza, erlatibismo linguistikoaren teorian (linguistic relativism delakoan) eta prototipoen ikuspegian (prototype approach delakoan) geldialdiak eginez. Espazioaren mugak medio, ideia eta adibideak ematera lotuko gatzazkio.

Munduikuskeren barne funtzionamendua "operatzaile" zehatzen bidez ematea ulergarria da, munduiskuskerak "pertzepzio-testuinguru" eta "behatzeko moduak" direlako (Walsh & Middleton, 1984, 17) "eta leiar horren bidez gure esperientziak interpretatzen ditugulako" (Ivey, Ivey, & Simek-Downing, 1997, 120) zentzu horretan, "norbanako edo gizarte baten funtsezko *orientabide kognitiboa* dira, beraien ezagutzaren eta ikuspuntuaren osotasuna bilduz, filosofia naturala barne" (Palmer, 1996, 114, hizkien etzanak nireak dira). Nola jarduten dute, beraz, munduiskuskerak? Clark (2002, 5)-ek gogorarazten digu, kontzeptuari egindako sarrera argian, "errealitateari buruzko hipotesi azpikontziente eta aztergabeak", normalean "hizkuntzaren eta tradizioen" erraietan "sakonki ezkutatuak" direla munduiskuskeren "zutabeak"; sinesmen horien gainean ezartzen direla "ohiturak, arauak, eta erakundeak"; eta balore horiek delako gizartearen "kultur esangura" osatzen dutela, pertsona batek bere esperientziak "zentzuzko" bihurtzeko erabiliak izango direnak:



(Source: Clark, 2002, 4)

Clark-ek (2002, 5) "jatorrizko mitoak, ipuinak, narrazioak, hizkuntza-metaforak" aipatzen ditu "zutabe" gisa, eta adibide gisa mikronesiar itsasketa azaltzean:

Mendebaldar marinolak itsasontzia bi puntu finkoren artean mugitzen deneko irudia du (...), [M]ikronesiarrek aldiz ez dute mapa edo iparrorraztik, eta ozeano irekia tarte luzeetan bidaiatu ahal izateko, uharterik uharte, pertzepzio egitura oso bestelakoa dute: ontzia eta izarrak dira geldi daudenak, eta uharteak dira beraien aurrean mugitzen direnak. (Clark, 2002, 5)

Tankera honetako "munduiskuskeren zutabe zehatzek" ezagutza aktiboa bideratzen dute, eta normalean hizkuntzaren bidez ematen dira edo eman daitezke (erlatibista linguistiko batek "beti" ematen direla esango luke). Hori dela eta "prototipo kognitibo-linguistiko" deituko ditugu, korrante kognitibo ezagunak ezagutza prototipoei eta kategoriei onartzen dien funtzio analogoa duelako. "Prototype approach" delakoaren fokapen teoria koherentziaz zabal genezake, beraz.


Eskolaren fundatzaile nagusia izan den Eleanor Roschek Natural Categories (1973) delakoan esan zuenez, prototipoa kategoriatik sortzeko indarra duen "lehen estimulua" da ("kategoria" Aristotelesetik, "errealitatearen atal bat" gisa ulertzen da). Ideia honakoa da: "kategoria" delako errealitatearen "atal" hori errealitate "osora" zabaltzea. "Kanpo errealitatea" osotasunean "kategoria" gisa ulertzen badugu, eta gure ezagutza "estimulu prototipo" bilatzailea bada, mundua ulertzeko "prototipo" esanguratsuak bilatzeko joera

izango dugula itxaron genezake, eta horiek erabiliko ditugula ezagutza zehatzetan gure arretak fokatzeko. Hau litzateke, beraz, arreta-fokatzaille gisa diharduen prototipo kognitibo-linguistiko bat.

Kultura arteko Psikologia izan daiteke, ziurrenik, "prototipo arreta-fokatzaille" gehien eta argien zedarritu dituen zelai teorikoa, nahiz eta ez dituen honela deitzen. Ikus dezagun klasiko bat: Masudak eta Nisbettek (2001) mendebaldar (estatubatuar) talde bati eta ekialdetar (txino) beste talde bati arrainontzi baten animaziozko filma bat ikusi eta gerora konta zezaten eskatu zieten. Mendebaldarrek gehiago lehenetsi zituzten arrain handien deskribapenak, eta ekialdetarrek arrain taldearen eta ingurunearen deskribapenak (10etik 7ko maiztasun handiagoarekin; arrainontzian aldaketak aurkeztu eta gero egindako itaun berrietan joerak errepikatu egin ziren). Konstanteak beste esperimendu batzuetan ere berretsi dira; adibidez, mendebaldarrak hobeak direnetan testuinguru gabeko marrak errepikatzen eta ekialdetarrak testuinguruarekin (Kitayama, Duffy, & Kawamura, 2003); edo estatubatuar atsotitzen bildumek esaera "analitiko-atomista" gehiago jasotzean, baina bilduma txinatarrek esaera "dialektiko-holista" gehiago (Nisbett, Peng, & Choi, 2001).

Beste egiaztatze batean, espresio arteei buruzkoa orain, autoreek diote "arreta" "zuzendua" dela existentzia partikularretara edo testuinguruetara (T. Masuda, Gonzalez, Kwan, & Nisbett, 2008), kultur mundu bakoitzaren tradizio filosofikoetan ere gertatzen den juxtu parekoa (Renteria, 2013). Esan bezala prototipo arreta-fokatzaille ezagunen aurrean gara; Masudak eta Nisbettek (2001) erabilitako filmaren fotogrametan irudi metaforak erabiliz:

Ezagutzaren "prototipo arreta-fokatzailleak":



Azken adibide bat, simplea eta argigarria (Nisbett 2003a): behi bat, ahate bat eta belar batzuen argazkiekin hiru txartel hurrei ematean, eta bi aukeratzeko eskatzean, estatubatuar hurrek behia eta ahatea aukeratu ohi dute (multzoaren zatiak edo existentziak) eta txinatarrek behia eta belarra (erlazioak eta testuingurua).

Oro har, inguruak irudikatzen "sentitzeko moduak" eta "arreta fokatzaille" erabiltzen ditugu, espresio linguistikoekin, filosofikoekin eta kulturekin (artistikoekin adibidez) loturan, Kultura Psikologiak ikertu bezala (Kitayama & Cohen, 2007a; Nisbett, 2003; Varnum, Kitayama, & Nisbett, 2010, etc.) eta mendebaldar-ekialdetar desberdintasunen pisuarekin (Kitayama, Duffy, Kawamura, & Larsen, 2003; Kitayama & Cohen, 2007b; T. Z. Masuda & Nisbett, 2001; Nisbett & Noranzayan, 2002; Nisbett, 2003; Nisbett & Miyamoto, 2006; Peng & Nisbett, 1999; Varnum et al., 2010).

Ezagutzaren "prototipo arreta-fokatzaileak":

Mendebaldeko ta Ekialdeko kanak



Errealitatea:



Zatietan "prototipo arreta-fokatzailea"
(Mendebaldeko atomismo analitikoa)

Testuinguruan "prototipo arreta-fokatzailea"
(Ekialdeko holismo dialektikoa)

Irudi kontzeptualen eraketari buruzko ikerketa kognitiboek prozesu horiek berreraiki dituzte. Sintesi ia bortitzean: arreta ingurumenaren aldea batean fokatzen da zentzu organoek estimulu edo estimuluak jasoz (xehetasun gehiagorako adibidez Goldstein, 2010) eta lortutako pertzepzio argibideak bildu eta interpretatzen dira kontzeptuaketa ahalmenarekin (Matlin, 2013, 32); hau guztia ere Psikologia Ebolutiboak haurren hasierako sinapsi sorkuntza ikaragarriarekin eta geroko sinapsi askoren bazterte kontzeptualarekin babesten du (Engstrand, Williams, & Lacerda, 2000). Kontzeptuaketa "arauak", "prototipoak" eta "adibideak" aplikatzen dira (Kellogg, 2003), baina denak uler daitezke prototipoekin ("arauak" etorkizuneko "prototipoak" eratzeko hartzen dira, eta "adibideak" prototipoengandik desberdinenak diren kasuak jasotzeko). Oro har, kontzeptuaketak errealitatearen konplexutasunari "galbahea" edo "iragazkia" pasatzen dio errepresentazio erabilgarria bihurtuz, eta "pentsamendu prototipikoa" erabiltzen da iragazkiaren arretak fokatzeko.

Azkenik, lau ohar prototipo horiei buruz. Objektuak, jarduerak edo eszenak irudi/hitza binomioan irudikatu ohi ditugu gure adimenean (Paivio, 1986 eta bere kodifikazio bikoitzaren teoria); "hitz/irudi" horiek munduko egiteak nola gertatu eta aurkezten direneko aurreikuspenak barneratzen dituzte (Luna & Tudela, 2006); mundu ikuspegi orokor horiek aurreko balizko eta baloreak baldintzatzen dituzte irmo, adibide klasikoko puntu multzo batean dalmata bat ikusten dugunetik zakurra ikusteari utzi ezin dugunean bezala (Lindsay & Norman, 1977); eta horregatik saihestezina da "adimena norbanakoarena eta jendartekoa dela era berean" (Edwards, 1997, 44). Ohar horien eta aurrekoen sintesia aurreikus daiteke: nahiko euskarri dugu munduikuserak arreta-fokatzaile diren prototipoetan oinarritzen direla esateko, kognitiboak eta hein handian linguistikoak izateaz gain.

"Attention-focuser prototypes" in movement agents of navigation.



c) Hutsa "prototipo arreta-fokatzaile" eta "errealitatearen zerizan" euskaldun gisa

Aurreko tresna kontzeptuala euskaraz aplikatu dezakegu, munduikuskeraren lehen ardatza eraikitzeko. Ez dugu oraindik hedatuko, argudioaren "egitura dramatikoaren" mesederako, baina honakoa aurreratuko dugu: Hutsarekin erlazioatutako irudiek errealitatearen euskal hizkuntzan eta munduikuskeran leku nabaria dute. Adibidez, "zulo hitzak euskaraz duen aberastasun lexikala eta hamaika esanahietarako makulu erabilgarritasunaz": «Ume asko ama zulo dira, sorgin zulo deitzen zaio lamien kobazulo askori, untxiek habi zuloak egiten dituzte, gurpilak zulatu egiten dira, (...) eta bahiketa gelak ere "zuloa" deitzen ditugu» (Agirre, 2010) Honi zuloaren irudiak euskal lokuzioetan duen presentzia nabaria erantsi diezaiokegu: "Zulo guztien petatxuak ukan (guztirako erantzuna izan); zulo berean bi aldiz erori ("tropezar dos veces en la misma piedra"); ipurdi batez bi zulo tapatu (aldi berean gauza uztar ezinak egin); zulodun zakuan gorde ("meter en saco roto"); txapel zuloka ("a cara o cruz"); eta abar.

Badirudi, euskaldunek inguruko herrikoek baino "zulo" edo hutsaren presentzia nabariagoa dakusatela arrunteko munduan, beraien eguneroko bizitzan eta existentziaz duten adiera ezkutuan... Zer iradokitzen du honek? Beste kulturen antzeko "prototipo arreta-fokatzailea" ematen du goitik behera, ingurunea irudikatze eta sentitzeko modu bat, bai adimenekoa eta bai hizkuntzakoa. Adibidez, zulodun praka berdinen aurrean "Hutsaren prototipo arreta-fokatzailea" duen ikusle batek adimenean irudikatuko duena, eta prototipo hori ez duenak irudikatuko duena, desberdinak izango dira (eta hori berresteko esperimenduak diseina daitezke¹²).

Lehen begirada batean, badirudi euskaraz, antzinateko hizkuntza zahar gisa, ez duela existentziaren zerizanari buruzko erantzun ontologikorik (Unamunok zioen hitz abstraktueterako ere ez zuela gaitasunik). Dena den, ohartzekoa da errealitate bat "puru" den esateko erabiltzen den esamoldea: "Huts" kontzeptua "zer edo zer" "zer edo zerk" osatzen duela adierazteko erabiltzen den forma abstraktua da. Kafea soilik duen edariari "kafe hutsa" deritzogu; miseria osoa miseria hutsa" da, guztiz leloa antzematen duguna "lelo hutsa", etab. "Huts" kontzeptuak errealitate baten purutasuna eta berezko izaera adierazten du beraz. (Hutsa = Zerizana = Osotasuna).

¹² Pareko bat ere badago: "los niños pobres percibían las monedas como de mayor tamaño, en comparación con los niños que no eran de esa condición social" (Rivas & Manuel, 2008, 129).

Hutsaren "prototipo arreta-fokatzailea".



Jolas dezagun aukera honekin; demagun errealitatearen zerizana, euskararen adiera sakon honek erakutsi bezala, Hutsa dela. "Hutsaren Hipotesia" deituko dugu.

Lehen ukitu batean zentzugabekoa dirudi, ezer baino lehen "hutsa"ren definizioa "ezereza" delako, ezer ez duen egoera edo izaera. "Huts" da "ezereza" deitzeko modua. "Hutsa" da "ezer ez", "ezereza", eta baita zero zenbakia. (Hutsa = Ezereza = 0) Honek kontuan hartu beharko ez genukeen hizkuntzaren polisemikotasun bat edo kontraesan bat iradokitzen du, hizkuntzaren kuriositate bat besterik ez. Oro har: Hutsaren kontzeptuak bai zerizana edo osotasuna eta bai ezereza adierazten ditu. (Hutsa = Zerizana = Osotasuna = Ezereza). Horrela, "Hutsaren Hipotesia"ren zentzugabekeria hori berehala baztertzeraz garamatza.

Baina kontuz: zentzugabekeria da soilik eta batez ere mendebaldeko munduikuskera modernoaren arabera. Egun mendebaldarrak ez diren planetako tradizio filosofikoekin alderatzen badugu euskara, irakurketa guztiz bestelakoa da. "Filosofia perenne" deitutakoetan, batez ere Ekialdeko filosofietan sistematizatzen denez, errealitatearen funtsa eta osotasuna "Hutsa" baita: Tao, Nirvana, Sunyata, neti neti,... dira tradizio desberdinetan "Hustasun" honetara igortzen duten izen desberdinak. Beraz, "hutsa=zerizana=osotasuna=ezereza" ontologia hau kontraesana dirudi, polisemikotasun edo kasualitate gisa bakarrik azaldu daitekeena; baina egun mendebaldarrak ez diren tradizio filosofikoen oinarrizko funtsa ontologikoa erakutsi dezake: errealitatearen esentzia eta osotasuna "Hutsa" dela. Merezi du orduan pixka bat kontrasta dezagun.

Euskaraz "Hutsa = Zerizana = Osotasuna = Ezereza".

→ Filosofia perenneen funtsa goitik behera uztartua.

Hutsa Hipotesia benetan zentzugabea den ikusteko Hutsaren ingurune semantikoa aztertzen hasi gaitezke. Ezerezari buruzko esamoldeek kontrakoa erakusten dute, "zer edo zer" kontzeptua. Esanguratsua da ere "ezer", "inoiz" edo "inor" kontzeptuek testuinguru askotan aurkako esanahia hartzen dutela: ezer behar baduzu, esan; ezer entzun duzu nitaz?; ezertan banaukazu... Eta benetako ezereza adierazteko, txikitzailea erabiltzen dugula: ez nien ezertxo ere ulertzen; ezertxo ere esan gabe. Berdin gertatzen da ezerezarekin lotutako denbora eta nortasun kontzeptuekin, inoiz eta inor; adibidez: inor inon inoiz ezer egiteko premia handian badago, esan dezala esaldiak juxtuki aurkako esangura du, "norbaitek nonbaiten noizbait zer edo zer" egiteko premiari buruzkoa da.

Iraganeko ohiturak, adibidez, “inoizko ohiturak” diogu, noizbait esateko “inoizka” darabilgu, eta abar. Gogoratu baita aurrerago esandakoa ere, Hutsarekin erlazonatutako irudiek errealitatearen euskal hizkuntzan eta munduikuskeran leku nabaria dutela.

Bestalde, “Hutsak” ematen digu materiarekin dituen loturetan hizkuntzarako gidoia; [Kutxa ← (antza) ← “K+Utsa”, hau da, “K/Gaia (edo materia) + Hutsa”]; [Putza = Kutxetako haizea ← (antza) ← “P + Hutsa”]; [Biluzi ← (antza) ← “Bilos edo ule + Utsik”)]... Bide batez, bi nano-hipotesi hizkuntzak munduikuskerarekin dituen loturak iradoki ditzaketanak. Batetik, “uts” fonema pareta aho zabalean ahoskatzen da, baina “K/g/p” ahots edo hots kolpez; izan dezake honek aitzin euskaldunen munduikuskeran isla edo iturririk? Bestetik, eta manikeismo espiritualistetan jausteko nahirik gabe, euskarak badu hutsa materiarekin lotuta doanean mespretxu gisa erabiltzeko joera (“kaikua”, “tontolapikoa”, “lelo putza”, eta abar); hainbat filosofia espiritualistetan aurkitzen dugun materiarekiko mespretxu bat hemen?

Gehiago: Hutsa adierazten duen margo eza edo “margo beltza” deitzen duguna, eta imajina edo “itzala”, presentzia nabarikoak eta (beste hizkuntza batzuekin alderatuz) adiera baikorrekoak dira euskaraz. Hutsaren ideiak, osotasuna definitzen duen balizko batek egin behar duen bezala, existentziaren alde negatiboak adierazten ditu sarri; akaso nabarietak “huts egin” esaerak duen presentzia (erakusgarri gisa begira adibidez Mokoroa, 1998ren bilduman duen presentzia), edo aurretik aipaturiko mespretxu gisa erabiltzeko joera (“lelo putza”, eta abar). Baina nabarmentzekoa da baita gure hizkeran, inguruko eta Europako beste hizkuntzetan ez bezala¹³, honakoa dela. Beltza ez da margo ezkorra; beste hizkuntzetan hainbat negatibotasun adierazteko erabiltzen diren jazoeretan beste mintzaira batzuk erabiltzen dira (“¡me estás poniendo negro!” adierazteko nire onetik ateratzen nauzu!; “¡tengo la negra!” esateko a zer zorte txarra!...) edo biziarekin erlazonatzen dugun margoa erabiltzen dugu, gorria: “verlas negras” gorriak ikusi diogu, “duro invierno”-negu gorria, “en la peor miseria” miseria gorrian, etab. Euskaraz ere baditu erabilera ezkorrak (“beltzak eta xuriak jasan”; “beltza egin”; “beltza gertatu edo erakutsi”; “beltzak ikusi edo pasatu” “beltza sakatu”), baina aurrekoa ere nabaria da.

Bestalde, “Beltza” pertsona izen gisa erabiltzen da, “Ilbeltza” urtarrilari ematen zaion hilabete izena da... Margo desberdineko gaiak deitzeko ere erabiliak dira beltza eta zuri kontrasteak: “ardo beltza” (esp. vino tinto); “kafesnea belxeago edo zurixeago” (esp. más o menos cargado);... Beste koloreen deituretan edo erlazonatutako adieretan osagaiak ere eratzen ditu: beltz-gorri; beltz ilun; beltz-jende; beltz-nabar; beltz-hori; beltz pitin; beltz-urdin; beltz-zuri; gorri-beltz... Azkenik, “itzalak” ere adiera baikorra du: “Axularrek itzal handia du gure literaturan”...

Eta ez da hor amaitzen. Benetako errealitatea “ezkutaturik” dagoela erakusten du “antzeman” aditzaren pisu handiak eta semantikak; ezagueraren erlatibotasuna adierazten du. Euskaraz “antzeman” edo “antza ematea”, hau da, “antzekotasuna aurkitzea”, ezagupena adierazteko oso hedatua da eta oso semantika edo esangura ahalmen zabala du; eta horrek Hutsaren balizkoa darabilten filosofia espekulatiboen eredia argi eta garbi adierazten du. Has gaitezen hizkuntz adibideak gogoratzen. “Solfeoari ez diot antzik ematen; Berehala antzeman nion nongoa zen; Mintzoari

¹³ Hipotesi hau linguistika konparatiboarekin beharbeste kontrastatzeko esperoan da.

antzeman nion...”¹⁴. Honek irmo iradokitzen du ezagupen arruntak ez duela benetako errealitatea ezagutzeko literalean balio, bere “isla”, “antzeko”, “manifestazio” bat soilik ari garelako ezagutzen. Normalean dugun ezagutza benetan “antzak aurkitzea” besterik ez da, ez dugu benetako errealitatea ezagutzen. Balizko hau garrantzi handikoa da filosofia espekulatiboetan. Egun mendebaldean ezagunena den kontzeptua filosofia hinduistako “maya” edo “ilusioa” da; baina baita budisten “samsarakaya”, taoismoaren ezagutza balizkoa (ezagut daitekeen Taoa ez da benetakoa), eta abar. Beste hitzetan, benetako ezagutza “antzak aurkitzean” datza, zuzenki aditzean baino. *Zentzatu edo ezagueran sartu* esateko beste mintzaera adierazgarri bat “arrastoan sartzea” da. Errealitate konkretu bat ezagutzean bere arrastoa eskuratu nahi izatea nahiko txeratsua da, berriz ere: “Arrastoan sartu; adibidez: ez dut mutiko hau arrastoan sartzea lortzen” (“no consigo que este chico entre en razón”).

Oro har, euskarak “hutsa”, “zulo”, “ezereza” eta “betetasun” zelai semantikoa oso zabala eta kontraesankorra du. Eta horretan, hutsak osotasuna adierazten du, ezereza zer edo zer badela, zuloan eta betetzearen egitean arreta handia...

Hutsa Hipotesia euskararen ingurune semantikoan: “Ezer” = “zer edo zer”. / “Zuloa”k leku nabaria. / Materiako formen hitzetan Hutsa gidoi. / “Beltza”, “Itzala” etab. presentzia nabaria eta baikorra. / Errealitatea “ezkutaturik” dagoela erakusten da “antzeman”en semantikan

Hutsa Hipotesia antzinako munduikuskera gorpuzten zuen mitologiarekin ere kontrasta daiteke. Abere beltz nabarmenek ohorezko lekua dute, etxe eta lurraren zaintzaileak dira, eta patu onekoak gertatzen zaizkigu gure sinesmen zaharretan. Akerbeltz, izan ere, gure panteoiko jainko nabarmena da, leku askotan Amalur edo Mari jainkosa nagusiaren abere forma edo isla nagusia (Barandiaran 1996, 124-26). Zenbait lekutan gorde den (eta antzina hedatua omen zen) ohitura honakoa da: etxe abereen artean aker beltz bat hezte eta izatea. Gogoratu, halaber, etxea antzinako euskal munduikuskeran Lurraren metafora edo manifestazioa dela (Barandiaran, 1987); beraz, akerbeltzek Lurra edo existentzia gordetzen eta zaintzen duela esan dezakegu, geroko garapen kontzeptualek inplikatu bezala. Beste sinesmen adierazkorra hau da: katu beltza ezustean ikustea patu oneko gertaera da gure artean. Europako beste leku gehienetan ez bezala! “Xantza onekoa” edo zorionekoa ikusten da, baita, katu beltza edukitzea bai gorputz gainean edo bai etxean (Azkue).

Bestalde, ilargiak duen pisuak Iluna eta Hutsaren boterea iradokitzen du. Gure sinesmen zaharretan ilargiak leku handia du. Hutsaren sinbolo nabaria da, ilargia Hutsetik jai (ilargi berrian) eta hara itzultzen delako (ilargi betean). Erlazionaturik, gauaren sinbolo nagusia da (gauaz gehien ikusten dena delako eta egunez gutxiago ikusten dugulako), “beltzarena” eta lurrarena (eguzkia zeruarekin eta ilargia lurrarekin lotzen delako, ikus Durand, 1960). Sinesmen indoeuroparrek alderatuta, batez ere, itzela da horiek eguzkiari eta izarrei emandako protagonismoa. Gurean eguzkia emakumezkoa da, gure amandrea, baina Lurraren alaba; indoeuroparretan aldiz argiaren, zeruaren eta mundu arruntaren sinboloa izan ohi da, eta gizonen boterearena. Gurean ere beste izarbelek

¹⁴ Espainieraz, adibidez, gure “antzeman” aditzaren itzulpenek semantika zabal hau betetzen dute: conocer o reconocer; notar; darse cuenta o percatarse; adivinar... Aurreko esaldiek esanahi hauek hartzen dituzte: *Solfeoari ez diot antzik ematen* → “yo de solfeo no entiendo”. *Berehala antzeman nion nongoa zen* → “enseguida me di cuenta de dónde era”. Mintzoari antzeman nion → “reconocí la voz”. Baina aditz honen adierak are zabalagoak izan daitezke oraindik ere: *Etorkizunari zeinek antzemango?* → “¿quién puede adivinar el futuro?”. *Ez zitzaion antzematen lanetik zetorrenik* → “no se le notaba que venía de trabajar”. *Hala jantzita, inork ez zion antzik eman* → “así vestido, nadie le reconoció”.

duten existentzia eza ia erabatekoa da; izarrak agertzen dituen mito bakarra Harpeko Sainduaren etorria azaltzen duen istorioa da (Claude Labat, 2012).

Istorio metaforiko askok Ilargia jartzen dute gure barneko izaerarekin erlazioan, eta hau erraz asko irakur daiteke Hutsaren iturburu zereginarekin. Adibidez, Ilargia hil ondoren gure arimak gordetzen dituen espazioa dela uste ohi da, eta mito batek dio gero euri gisa itzultzen direla gure arima horiek, jaiotzeaz dagoen beste izaki edo gizaki berri batean berraragitzeko (Aurkenerena, 1999). Hori oso ondo lotzen da Hutsa iturburu gisa duen ikuskera espekulatiboarekin: mundu arrunteko formak galtzean (hiltzean), barneko izaerara (Hutsera) itzultzen gara, gero berriz ere forma berria hartzeko (berraragitzeko). Ekialdeko filosofia espekulatibo garrantzitsuenetan hau oso presente dago (batez ere hinduismoan, arreata gutxiagoz taoismoan, eta gogoeta sakon batean budismoan).

Errepikatzen da baita ere usadio zaharretan “beltz” margoaren presentzia baikorra. Hizkuntzan aipaturiko “beltz” pertsona izen gisa edo “ilbeltz” urtarrila hilabetea deitzeko hitzak dira, baina imajinetan jarraitasuna duten ildo esanguratsu baten hasiera besterik ez dira: “Arrano Beltza” nafartasunaren eta euskalduntasunaren ikur gisa... Amaitzeko, euskal mitologiak barneratzen duen munduikuskera Hutsaren ideiatik erator daiteke Amalurren eskutik, proiektu honen hurrengo atal batean argudiatu bezala.

Ildo honi begira, akaso ez da ustekabea edo txiripa euskarak Hutsaren ideari emandako garrantzia. Euskal sinesmen zaharrek Hutsa Hipotesiari euskarria ematen diote. Horrela, euskal mitologian Hutsaren kontzeptua eta Hutsaren kontzeptuarekin pareka ditzakegun islak (margoak,...) konstante eraikitzaile gisa uler daitezke.

[Hutsa Hipotesia mitologian: Abere beltzek ohorezko lekua, zaintzaile eta patu onekoak. / Ilargiak leku nabaria du. / Mundu ikuskera Hutsaren ideiatik erator daiteke, Amalurraren eskutik](#)

Aurrekoa erakuts dezaketen beste kultur espresio batzuetan leku nabaria izan du euskal arteak. Antzinako euskaldunek errealitatea erakusteko zuten adierazpenetan Hutsa agertzen baita nonahi. Kultura indoeuroparrek idazkera (edo berarekin kontaktua) izan dute beraien sorreratik, dirudienez; eta halere, hutsa adierazteko grafiak ia ez dira beraien idazkeretan eman. Euskal arbasoek ez zuten izan, dakigunez, idazkerarik; baina bai errealitatea irudikatzeke agerraldiak, eta ez gutxi: haitzuloetako labar margoetatik, trikuharri edo harrespiletatik pasatuz, berantiaragoak ditugun hilarrietara. Eta harrigarria da (inoiz baino aproposagoa “harri” atzizki eta aurrizkiaren erredundantzia): Hutsa nonahi irudikatzen ez ziren nekatu. Labar artean eskematismoetan ziurrenik (eskuak adibidez negatiboan irudikatuak), euskal harrespilen “minimaltasunean” eta “hustasunean”, geroko hilarrietan emandako “puntu” edo huts jatorrian, eta berriki Oteitzaren eta besteen joerak akaso ildoaren isla berriak dira, teoriko batzuek suposatzen duten “inkontziente kolektiboa” gorpuztuz.

[Hutsa Hipotesia artean: Labar artean / Harrespiletan. / Hilarrietan. / Oteitza eta besteengan...](#)

Zein izan daiteke honen guztiaren irakurketa zilegia? Hutsak gure hizkuntzan, gure munduikuskeran eta ikuskera horren adierazpenetan duen presentzia nabaria, antzinako euskaldunen munduikuskerak Hutsa funtsezko azpi-errealitatetzat hartzen zuenetik eratoritzea oso litekeena da, argi baitago geroago etorritako ikusmolde eta hizkuntza indoeuroparrek ez ziotela honi lehentasunik ezta toki filosofiko-linguistikorik eman. Ziurtasun handia ematen du gure espresioetan Hutsak bai ezereza eta bai osotasuna adierazteak, adierazpenetan nonahikoa izateak eta noiznahi ardatz eta iturburu gisa jokatzek.

Hutsa Hipotesia: aitzin euskal mundu ikuskeran Hutsa funtsezko azpi-errealitatea da. / Euskaran, mitologian eta kultur adierazpenetan euskarria ematen zaio horri.

d) Hutsa Hipotesiaren kontrasteak: filosofikoak, mitologikoak, linguistikoak...

Hasteko, oso bitxia da zer edo zer juxtu aurkakoarekin definitzea; ba al dago parekorik munduan? Jada aurreratu dugu horrela dela. Errealitatearen “zerizan edo esentzia” edo beraren “jatorria edo sorrera” azaltzeko bizpahiru “tipo ideal” finka genitzake: a) materia (errealitate desberdinak edo materia dira edo materiatic eratorritako bizidun edota giza izakiak dira); b) Jaungoikoa (materiaz haratago printzipio batek sortu du dena); c) izadia eta bere bizia (dira errealitatearen funtsa); eta d) hipostasi arrazionalki ezagutezin bat (errealitate desberdinen baitan dagoena da, forma guztiak bere manifestazio edo isla izanik). Tipo ideal hauekin munduikuskera gehienak bereizi daitezke, eta zaila da, baita ere, baten bat guztiz lotzea tipo batekin, baina aitzin euskal munduikuskera, d) tipo ideala sistematizatzen duten filosofia perenneekin parekatzen da. Aski ezaguna da *Tao Te King* delakoaren lehen bertsoan “defini eta azal daitekeen *Taoa* ez da benetako *Taoa*”, edo Budak *Nirvana* negatiboki hurbildu izana “sin tierra, ni agua, ni fuego, ni aire, sin espacio ilimitado, sin conciencia ilimitada, sin estado de ni percepción ni ausencia de percepción; algo sin este mundo ni otro mundo; (...) no lo llamo ni ir, ni venir, ni estar, ni nacer, ni morir, no tiene fundamento, duración ni condición” (*Udanna* 8.1)...

Euskal mundu ikuskera: hipostasi arrazionalki ezagutezin bat aldarrikatzen duten filosofia espekulatiboekin dator bat.

Nolatan ba euskal mitologoek eta etnologoek honetaz idatzi ez izana? Nire ustez, ikuskera aurreindoeuopar bat ulertzen saiatu gara indoeuopar erroak dituen adimen “moderno” batekin. Adibidez, “Ortzi” edo zerua -juxtu indoeuoparren jainko nagusia- ikusi da sarri gure lehen numen gisa, Azkuetik hasi edo Aurkenerenarekin jarraituz (Barandiaranek ez zuen erabakitako gaitzat hartzen). Bi argudio nagusi dira: a) Aymeri Picaud erromesak XII. mendean, Donejakue bidea egiten zebiltzala, euskaldunei buruz “Jainkoari deritze Urcia” idatzitakoa; eta b) “ortzi” edo -berdina den- “osti” erroak zenbait hitzetan aurrizki gisa duen eginkizuna.

Kritiketan sartu aurretik, honakoa esan behar. Aitzin euskaldunek Ortzi izadiaren “indar”, “numen” “izaki mitologiko” edo akaso “jainko” moduan hartzea edo gurtzea litekeena da, ikuskera izadizale edo naturistek inguruneke izaki guztiak bezala zerua ere “jendetu” edo “giza-eratu” ohi dutelako (mendiak, errekek edo abereak kasu). Horren aurka, beraz, ezer ez; akaso jainko garrantzitsua zatekeen gure artean indoeuoparren etorrera baino lehen (zeruak izadian eta gure bizitzan duen paper garrantzitsuagatik). Baina jainko nagusia izateak ez ditu hainbeste aukera, zoritxarrez. Egun hain hedatua den uste honek ez dio azterketa sakonago bati saiotxo bat ere eusten:

- *Mitologiaren istorioetan, Ortzik eta bere kideek ez dute ohartzeko leku eta egiterik;* gainera, ez dago gorpuztua izaki mitiko argi batean, ezta izaki abstraktu gisa ere; indoeuoparengan erkideak ziren “zeru mitologietako” *Eguzki* izakia oso gutxi agertzen da gure artean; *Ortzirekin zerikusi gehien duten izarbelek ez dute lekurik,* Harpeko Sainduaren etorria azaltzen duen istorio bat salbu (Labat, 2012)...
- *Presentzia eta jarduerak Mariri dagozkio nabarmenki, ez Ortziri;* gainera, indoeuoparretan Zeruak duen aitatasuna gure artean Lurrak du amatasunean (Lurra edukiontzi zabala eta amaigabea da); izaki mitiko asko bere isla edo formak dira; gauarekin erlazio handia duen *Ilargi* asko agertzen da; zeruko izarbelak (eguzkia, ilargia, izarrak) gordetzen eta sortzen dituen da... Nolatan ba Ortzi jainko nagusiaren osagai garrantzitsuenak Lur azpi-jainkosa batek sortu?

- Errealitatearen zuhaitza, izaki metaforikoen kokapenek osatzen dutena, Maritik eratorritako formak dira (gero sakonduko dugu); gainera, euskal etika edo jokamoldea ere Marik finkatzen du.

Horien gainean, argudiatuena Lurraren presentzia eta Mariren irudia nabarmentzearen jarrera da, euskal mitologoaren artean ohikoa den moduan. Eta zuhurra da, baita, jainkozko “nagusi” baten bilaketan gehiegi ez sartzea, “nagusitasun” hori zantzu guztien arabera joera indoeuroparra delako, hierarkien aldekoa. Galdera, beraz, Mari edo Dama irudiak Hutsa gorpuztu dezakeen ala ez da, gero ikusiko duguna.

Hutsaren ahanztura “Ortzi”ren alde; ba al du zentzurik?

Alde: a) Aymeri Picaud erromesak XII. mendean. “Jainkoari deitzen zioten Urcia”; b) “Ortzi” edo – berdina den- “Osti” erroa.

Aurka: a) Mitologian Ortzik eta bere kideek ez dute azpimarratzeko leku eta egiterik; b) presentzia eta jarduerak Mariri dagozkio nabarmenki; c) errealitatea Marirengandik eratorzen da, ez Ortziengandik.

Hutsa hipotesiaren kontraste linguistikoekin hasi baino lehen, kontuan har honakoa. Prototipo kognitibo-linguistikoei kontraste linguistikoak aplikatzea bidezkoa eta beharrezkoa da, dimentsio hori dutenetik. Baina, edonola, historian zehar bere esanahia edo “adierazia” mantendu izanak ez du nahi eta nahi ez bere forma linguistikoa edo “adierazlearen” egonkortasuna inpliketzen. Hein horretan, kontraste linguistikoak ebidentzia baino gehiago zantzu seinale gisa hartzea komeni da; hurbilketa kontraste bat baino gehiago ezin dezake inplikatu, adierazleen eta adierazien bilakaera historikoak ez baitira beti eta nahi eta nahi ez hertsiki paraleloak. Gure kasuan, euskal munduikuskeraren alde garrantzitsua izan daitekeen “euskarak islatzen duen hutsaren sentipena” egungo euskararen lekutu dugu, eta hau antzinateatik datorkiguna onetsi dugu argudio logikoen bidez (indoeuropar ingurunean sentipen horren eskasia dela eta, adibidez), baina honek ez du suposatzen nahi eta nahi ez egungo euskararen formak antzinatean era berean ematen zirenik (Saussure, 1916-ren terminuetan, adierazlearen aldaketa adierazia mantenduz gertatu ahal izan delako).

Beste hitzetan, “antzinateatik existentzia hutsaren bidez ulertzen dugu” dugu, baina egungo “huts” hitza antzinatean “uts” izan zitekeen, edo “juts”, edo “oro”, edo “led”, geroko aldaketa linguistikoek prototipoaren eragintza kognitiboa ezabatu gabe. Egungo prototipo historiko bat proposatzeak, beraz, ez du inpliketzen aitzin hizkeraren hitzei edo beste formei buruzko teoriarik; aitzin euskal mundu ikuskeraren proposamenak ez dakar parean aitzin euskararen alde zehatz horren proposamena. Azken urteotan euskarari buruzko eztabaida sozialetan euskalari eta euskaltzale batzuen arteko erlazioak ikusirik (zenbait hezkuntza begirunek erabat galduak dirudite), ez dago txarto gogoratzea...

Kontraste linguistikoak tankera honetakoak izan litezke. “Huts” hitzak berak Lakarra (1995)-ren CVC aitzin euskal hitzentzako proposamena gorde dezake, baina kontraste zabalagoak komeni dira; har dezagun saioa egiteko “akerbeltz” zeinua. Argi dago bi zati dituela, linguistika historikoan autoktonotzat onartu diren bi item lexiko direnak, “aker” bisilabikoa eta “beltz” monosilabikoa. Lehen hurbilpen batean, kurioa da aurretik Mitxelenak berreraikitako eta gerora Lakarra-ren (1995) proposamen (jada kanonikoaren) azalpen adibide akaso ugariena *bel- partikularena izatearen kasualitatea, aitzin hutsarekiko euskal sentipenak linguistika modernoan tokitxo bat hazkatu nahi izan balu bezala... Serioago, deigarria da ere Martínez Areta-k (2008) aitzineuskararako proposatutako 17 izenondoetatik bi hutsaren metaforak izatea (*bel “beltza” eta *bor “biribila”): hutsa hipotesiaren zantzua?

Baina aurkako kontrasteak ere izango genituzke. Aker zatirako Lakarra (1995)-an aker < *han-ger da berreraikipena, delarik *han “animalia” erakusteko morfema (cf. ahuntz < *han-huntz, han-di ...) eta delarik *ger “gaiztakeria edo bihurrikeria” erakustekoa (cf. oker “torcido”, maker edo “desitxuratu”, puzker...). Hemen ez da korrelazio epistemiko-linguistikoa: gure baserrietako ohituretan aker bat eta zehazki akerbeltza beste abereak zaintzeaz arduratuz, eta mitologian numen “nagusia” izanik, paradoxa argia litzateke bapatean aitzineuskaldunaren ostekoak “akerbeltz” item lexikala sortzeko non eta “gaiztakeria”ren elementu monosilabikoan (ustezko *ger horretan) lehengai bila ibiltzea. Kasu honetan, hutsa hipotesia zuzena bada, berreraikipenak ez dirudi oso bidezkoa.

Amaitzeko, eta linguista berezilaria estuek oso desatsegin dituzten diziplinaz kanpoko ekarpen gisa, aurkako noranzkoan hipotesi epistemiko-linguistikoak berreraiketa linguistikoren bat ere iradoki dezake; adibidez, akaso Lakarra-k (1995) proposatutako egungo “bel-tz” zelai semantikoa “bel+huts” baturaren aldaera gisa uler liteke¹⁵.

e) Mariren esanahi sakona


Lan honek zeukan espazioak berea egin du, baina, hala ere, ezin eutsi inplikazio eta lan ildoetara; laburrean saiatuko ditugu. Hasteko, mito guztiek dituzte azaleko eta sakoneko irudiak eta esanahiak. Izakien maiztasuna (istorioetan presentzia), garrantzia (beste izaki eta naturako ekaietan eraldaketa ahalmena, adibidez) eta abar ikusirik, euskal mitologia “Mari”, “Maia” edo “Dama” izakian ardatza duen eraikuntza gisa ikusi ohi dugu, eta “Señora” hori hartu ohi dugu “Lur”, “Lurraren Ama” edo “Amalur”, “Izadia” edo “Natura”ren gorpuzte gisa. Munduikuseren eskeman mitologiako izaki nagusiak errealitatearen esentzia irudikatu ohi du, beraz, irudi hau ulertzeko hizkuntzan eta kultur espresioetan zerizana nola definitzen eta islatzen den gogoratu beharko dugu. Bitxia ematen badu ere, Lurra izate osoaren funtsa moduan ikustea nahiko erkidea da ikuskera naturalistetan. Australiako aborigen batek, adibidez, poetikoki adierazi du ikusmolde teluriko hau, berarentzat Lurra zer den galderaren aurrean:

Lurra izatearen ernamuina da... / Zeru, hodei, hibai, zuhaitz, haize eta areaz egindako leku bizia; / eta izaki bakoitzean, hatsa damaion izpiritua –nere lurra... / Izaki biziduna bera. / Bera nirea da. Eta ni berea naiz. / Bera da nire atsedena. Beragandik nator. (Bill Nedji, Australiako Ipar Eskualdeko agurea).

Parean interpretatua izan da euskal mitologia ere: “Euskal mitologian, Lurra (...) Izatasunaren Etxetzat ezaugarri genezake” (Ortiz-Osés 2007, 44). Eta batetik euskararen munduikuskera, eta bestetik filosofia perenneekin parekotasunak gogoratuz, “Mari=Lurraren Irudi=Hutsaren Irudi” eskemaren koherentzia erakutsia izango zen. Horrekin, munduikuskera baten lehen galderari erantzun betea emango zitzaien: “zer da errealitatea eta nola (zein irudiz) ezagutu dezakegu?”

Eskemaren sinesgarritasuna sendotuko zen munduikuseraren ildo jarraituz, bere beste ardatzak lehen horren bornean taxutu eta bera garatzen dutelako (adibidez, ezagupenen egiaztatzeak lurraren bidezkoak direla ikusiko genuen azken puntuan, sorgintasunen bidez). Baina diogun bezala, espazio mugak direla eta, proiektua azken aldiz argudiatzera eta sintesi bat ematera mugatu beharko dugu azken atalean.

¹⁵ Euskal linguistika historiko ortodoxoak beltz<*bel+uts aldaeraren alderen bat onartuko lukeela dirudi, Gorrochateguik biluzi<Bilos+uts berreraiki baitu, “uts” item lexikoaren zeinu linguistikoa bai “uts” eta bai “utz” izan direlako historikoki (Orotariko Euskal Hiztegia).



Mari energia gisa, irudikapen moderno batean
(under Creative Commons by Josu Goñi Etxabe)

f) Badugu aitzin euskal munduikuskera berreraikitzerik?

Lan honetan munduikuskeraren kontzeptua azaldu eta operakor egiteko tresna bat proposatu dugu, euskarari eta euskal mitologian saiakera bat eginez. Baina baliteke eskema osoa euskalduna izan daitekeela baieztatzerik? Weltanschauung´ren esanahia zabaltzen badugu eta “filosofia mota tradizionalekin” parekatu, germaniar tradizioko filosofoek egin ohi zuten bezala, filosofia proposamen bat euskalduna izatearen baldintzetara gindoazke. Ezer baino lehen, mendebaldean “filosofia” deitzen dugun hori euskal kulturari -beste jarduera kulturalen ondoan behintzat- gutxi praktikatua izan dela ematen du. Lan eskasia nabaria dirudi, eztabaidak urriagoak oraindik¹⁶... Baltzak (2000) horrela onartzen du, eta azalpena eman ere: mendebaldeko filosofia -grekoen garaitik- “izatearen” filosofia da, identitatearen kontzeptuan oinarritzen diren hizkuntza indoeuroparrekin oso bateragarria; baina euskarari ez du “identitate” edo “izatearen” gorpuzte zehatzik. Ezina ezin kasu honetan ekinez egin, beraz. Horrek mugatuko luke asko euskarari egindako filosofia “estandarra”, eta inertzia kulturek akaso sendo baldintzatu ere beste hizkuntzetan herri honetako teorikoek egindakoa.

Gaiari buruzko beste saiakera batzuk ere badaude, ez hain apartekoak nire ustez, baina gogoetak egiteko modukoak. Adibidez, eta iturri horien bidetik, jo dezagun aurretik aipatutako leku horretara berrikuste intelektual batean: “filosofia/intelektualtasuna” eta “euskal mundua” delakoen arteko zailtasunak edo ezinegonak argiak omen dira (Iztueta Armendariz, 1993; Odriozola, 1992), baina “liskarren” aldeak ikusirik kultur inperialismoaren isla berri baten aurrean ez ote garen pentsarazten digute (Antxustegi, 1991), eta joera hau noiz hasi zen galdetuz “euskalduntasunari mespretxuak” antzinate zaharrean hasi zirela ikus dezakegu (Gamboa & Ruiz Torrado, 2006); ondorio gisa eta azken batean, ustezko kultur identitate hautsiak botere falta historikoen eraginak edo engainuak soilik ez ote diren mahai-gaineratu dezakegu (Iztueta, 2003). Claudio Sánchez Albornoz Espainiar Errepublikako Lehendakariak (erbestean), historiagile entzutetsuak eta besteen artean Premio Príncipe de Asturias de Comunicación y Humanidades saridunak (1984) xaloki erakutsi zuen hori, euskal kulturari buruz zuen ustea azaltzean:

Los vascos son los últimos que se han civilizado en España: tienen mil años menos de civilización que cualquier otro pueblo... Son gentes rudas, sencillas, que además se creen hijos de Dios y herederos de su gloria. Y no son más que unos españoles sin romanizar.... Yo le decía al presidente del Gobierno Vasco cuando yo era presidente de la República: ¡hablen el vasco, hablen si es que pueden, porque la

¹⁶ Euskal Herriko filosofiaren birpasa luzeetan ikus Aizpuru (2012); laburragoetan Rodríguez Bornaetxea (2004), Eizagirre & Ibarra (1995), Puy Muñoz (1988), Mendizabal (1957), Olano Galarraga (1934); bitxikerietan Alzo (1966),...

mayoría no lo saben! Pero a pagar impuestos, ¡como todos los españoles!
(Azurmendi, 1992'k zitatua)

Zein aukera hartu beraz, euskaldunek berezko-berezkoa duten munduikuskera ezagutu nahi badugu, historikoki “nahastua” izan den ikuspuntu epistemikoa izaki? Hasieran eztabaidatutako irizpidera garamatza: noiz den zerbait euskaldun. Hemen, berreraikitze kontzeptual askotan horrela egiten delako eta bide batez eztabaida horien uxatzeko, gaiaren funtsera lotuko gatzazkio: noiz berma dezakegu munduikuskera hori bertoko berezitasunetan ezbairik gabe garbia, xahua eta aratza zela? Baltzak (2000) gogoratu bezalako berezitasunak ondo isola ahal izateko, antzinatek datozkigun joera nahastaileak saihesteko ezinbesteko izango zaigu kanpo eragin horiek heldu baino lehenagoko antzinate zaharragoan arakatzea. Hots: aurre-indoeuropartasunean.

Lan honetan, beraz, euskal munduikuskera edo “kosmo-ikuskera” diogunean euskaldunok berez, guk geuk eta lur maitatu honetan, sortu genuen mundua eta bizitza azaltzeko moduaz ari gara. Egungo gizarte mendebaldarraren ikuskera zientifiko modernoa XVII. mende ingurutik aurrera joan zen eraikitzen; baina aurrekoa genuke gure ikuskera. Filosofia judu-kristaua zeukaten gizarte batzuetan jaio zen zientzia mendebaldar moderno hau, eta filosofia hauen eraikuntza orain 2.000 urte hasi zen. Aurrekoa dugu geurea. Munduikuskera indoeuropar jaio zen, era berean, filosofia judu-kristaua. Ikuskera indoeuropar hau kristo aurreko 4.500 inguruan hasi zen Ekialde Hurbiletik Europara hedatzen. Gure euskal ikuskera hedapen indoeuropar hori baino antzinagokoa da¹⁷.

Noiz litzateke euskal munduikuskera euskaldun?

- Weltanschauung´a “filosofia tradizionalekin” parekatuz zaila da, euskarak ez duelako indoeuroparren “identitate” edo “izatearen” gorpuzte zehatzik (Baltza 2000).
- Antzinatek etorritako joera nahastaileak saihesteko ezinbestekoa eragin horiek heldu baino lehenagoko antzinate zaharragoan arakatzea, aurre-indoeuropar garaietan.

Mundu ikuskeren osagaiei buruzko proposamenen artean Renteria (2013) harturik irizpide, euskal munduikuskerak weltanschauung baten labela jasoko luke, ikuskera zabala eta koherentea izango genuke, bost galdera ontologiko eta epistemologikoei erantzun betea ematean. Berreraiki dezakegun aitzin euskal munduikuskerak, nire aurreikuspenean, guztiei ematen die erantzun zabala eta koherentea. Ikus ildo nagusien sintesia, beste alternatiba epistemikoen parean:

¹⁷ Ñabardura kontuan har: indoeuropar munduikuskera noiz sortu zen alde batera utzirik, euskal munduikuskera “hedapen indoeuroparra” baino antzinagokoa dela diogu; hori bai sendo argudia daitekeela munduikuskera zabal hedatzean agertzen diren lekuz-kanpoko aztarnen arabera.

<i>Ardatzak.</i>	<i>Zientzia klasikoa.</i>	<i>Zientzia alternatiboak.</i>	<i>Filosofia perenneak zientzia holografiko gisa.</i>	<i>Aitzin-euskal mundu ikuskera.</i>
<i>Zer eta nolako da errealitatea?</i>	Makina bezalako.	Sistema (autoerregulatua, ekosistema, holograma...)	Holograma edo jatorrizko errealitate ezkutua.	<u>Hutsa eta Amalur.</u>
<i>Zeintzuk eta nolakoak dira eragile edo konposagai nagusiak?</i>	Zati "atomikoak", guztiz banatu eta autodefinituak.	Zati "sistemikoak, konplexuak eta elkar-determinatuak.	Aurkakoen oreka zerizan gisa dutenak.	<u>Adur eta Indar (Maia eta Maju, Atarrabi eta Mikelats, ...).</u>
<i>Nola eraikitzen da errealitatea eragile edo konposagai hauetatik?</i>	Lege konstante eta unibertsalen bidez.	Prozesu sistemiko eta dinamikoen bidez.	Prozesu holografikoen bidez.	<u>Mariren Etika eta izaki mitikoen baloreak.</u>
<i>Zein da aurrekoak ezagutzeko estrategia nagusia?</i>	Espezializaketa.	Diziplinartekotasuna.	Diziplinartekotasun bateratzailea.	<u>Mitoen oihana eta ehuna.</u>
<i>Zein da ondorioen egiaztapen enpiriko mota?</i>	Frogaketa materialak.	Ikerlaria kontuan (verstehen...)	Bizitza batasuna.	<u>Hizkuntza Mitiko-Analogikoa eta Sorginketak.</u>